

- Zaldibian etxeetan sortzen diren hondakinak **saikaturak** eta **atez ate** biltzen dira.
  - Etxebizitza bakoitzak identifikatutako **ONTZI-SORTA** bat du papera eta kartoia, organikoa, ontzi arinak eta errefusa ateratzeko. **Udaletxean eskura daitezke doan.**
- Iluntzeko 20:00etatik goizeko 6:00ak** bitartean atera behar dira.  
**Hurrengo egunean jaso** behar dira eta etxera eraman.

IGANDEA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA
			 	
ontzi arinak	organikoa	papera eta kartoia	ontzi arinak / errefusa	organikoa

Hondakinak dagokion **ontzi barruan** atera behar dira. **Poltsatan ez dira atera behar**, pixoihalak izan ezik.

- **PIXOIHALAK** plastikozko **poltsa itxi** batean sartuta atera daitezke eta ontziarekin batera zintzilikatu, **igandetik ostegunera**.



- **ORGANIKOA:** Hondakin organikoarentzat **bi ontzi marroi** jasoko dituzu: sukalderako, 10 litroko ontzi txiki aireztatua eta kalera ateratzeko 20 litroko kubo itxia.

Hondakin organikoak poltsarik gabe atera daitezke, paper zorroetan edo **"OK konpost"** ziurtagiria duten **poltsa konpostagarrietan**.



10 l



20 l



- **Nola lortu POLSA KONPOSTAGARRIAK:** Mediku etxeko sarreran poltsa konpostagarriak ematen dituen **makina** dago. Sasieta mankomunitateko **txartela** erabiliz **10 astean behin** poltsa sorta bat doan eskura daiteke.



# Hondakinik onena sortzen ez dena!

- Beste zenbait hondakin edukiontzien bidez biltzen dira:



Beira




Sukaldean erabilitako olioa



Arropa





Pilak




- Etxeko gauzak (altzariak, koltxoak, somierrak, etxetresna elektrikoak...), hileko 1. eta 3. ASTELEHEN GAUEAN atera behar dira. Utzi beira edukiontzien ondoan.

- OBRAKO HONDAKINAK**, paletak, txatarra, pneumatikoak, etab. ez dira jasotzen eta **GARBIGUNERA** eraman behar dira. **Ordizian** dago, suhiltzaileen ondoan.



## Ordutegia

Astelehenetik ostiralera  
**9:00-13:00 / 15:30-18:00**  
 Larunbatean (abuztuan izan ezik)  
**9:00-13:00**



- Baserrian hildako edo ehizatutako **animalien erraiak, larruak eta hondakinak** Ordiziako garbigunera eraman daitezke doan ere.



## INFORMAZIO GEHIAGO

Zalantzaren bat baduzu, ondorengo gidak kontsulta ditzakezu:  
 "Hondakinak zuzen bereizteko gida"  
 "Horian, zer sar daiteke?"

**SASIETA MANKOMUNITATEA:** Tel.: 943 16 15 55  
 info@sasieta.eus • www.sasieta.eus

**ZALDIBIAKO UDALA:** Tel.: 943 88 03 57 • bulegoa@zaldibia.eus • www.zaldibia.eus



**SASIETA**

MANKOMUNITATEA

www.sasieta.eus